

Topalekua

95 zk. 2017ko uztaila

julio 2017 - n.º 95

1-4. orr.: Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ko 2017rako aurrekontua onetsi du; %0,69 igoko da eta 405,5 milioi eurora helduko da

2. orr.: Unibertsitate-sistema europarretako egiturazko erreformen azterketa

2-3. orr.: UPV/EHU-ko jarduera zientifikoa IUNE 2017 txostenean


3. orr.: Euskadi, europako batez bestekotik gora, lehiakortasun-rankingekeo 119. postuan da

GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHU-ko 2017rako AURREKONTUA ONETSI DU; %0,69 IGOKO DA ETA 405,5 MILIOI EURORA HELDUKO DA

UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluak, joan den uztailaren 20an Osoko Bilkura eginda Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko 2017rako aurrekontua onetsi zuen;

405,5 milioi eurora helduko da, aurreko ekitaldiko 402,7 milioi euroekin alderatuta %0,69 gora eginez.

2004-2017 AURREKONTUAREN EBOLUZIOA



UNIBERTSITATE-SISTEMA EUROPARRETAKO EGITURAZKO ERREFORMEN AZTERKETA

Diru-sarreraren iturrien dibertsifikazioa, langile akademikoen estatusaren aldaketa, kudeaketaren profesionalizazioa edo baliabide publikoak errendimenduari arabera esleitzea Europako hainbat herrialdetan beren unibertsitate-sistemak erreformatzean gehien hartu diren neurrietako batzuk dira.

Espainiako Ganberak, CYD Fundazioak (Conocimiento y Desarrollo) eta Espainiako Unibertsitateetako Gizarte Kontseiluen Bilkurak (CCS) «Unibertsitate-sistema europarretako egiturazko erreformak» azterketa aurkeztu dute. Bertan Austria, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Herbehereak eta Portugaleko kasuak zehatz aztertzen dira; herrialde horietan Goi mailako Hezkuntzaren esparruan erreforma adierazgarriak abiarazi dira eta dagoeneko izan duten eragina azter daiteke.

Txostenak dioenez, erreforma guztietan ere hamar joera orokor ikus daitezke:

1. Gero eta autonomia handiagoa.
2. Kanpoko eragileek gobernu-erakunde kolegiatu gorenetan duten garrantziaren hazkundera.
3. Kudeaketa instituzionalaren profesionalizazio handiagoa.
4. Langile akademikoen estatusaren aldaketa, funtzionario publikotik laboralera.
5. Kontu-emate handiagoa.

6. Kalitatearen ebaluazioa.
7. Diru-sarreraren iturrien dibertsifikazioa.
8. Baliabide publikoak errendimendu-adierazleen bitartez esleitzea.
9. Unibertsitateen arteko lehiakortasuna handiagotzea.
10. Unibertsitateen arteko fusio-prozesua.

Azterketak agerian uzten du hainbat herrialdetan burututako erreforma-prozesuek zera diote, aho batez: «ezinbestekoa da gobernuak unibertsitateek garapen ekonomiko eta sozialeko estrategia nazionalen daukaten egitekoaren inguruan dauzkaten helburuak argi eta garbi ezartzea, beren egitekoa ahal bezain ondo ebaluatu ahal izateko», baita estatuaren kontrolaren eta erakundearen autonomiaren arteko oreka egokia aurkitzea ere.

Agileak diotenez, Espainiako unibertsitate-sistemak erreformatutako unibertsitate-sistemetak ezaugarri orokorrekin alderatuta ezberdintasun nabariak ageri baditu ere, lana erabilgarria izango da gure herrialdean etorkizunean abiaraziko diren ekintzetarako, gobernu-erakundearen konfigurazioa, arduradun akademikoen hautaketa-prozedura, finantzaketa-sistema, ebaluazio-sistema edo bategite- eta aliantza-politikaren moduko auzien inguruan esate baterako.

UPV/EHU-ko JARDUERA ZIENTIFIKOA IUNE 2017 TXOSTENEAN

UPV/EHU posizio nabarmengarrian dago ikerketari buruzko IUNE Behatokiaren 2017ko Txostenean, ikerketa-jarduerari dagokionez eta unibertsitateko komunitateak sustatuko spin-offen kopuruari dagokionez, baita Espainiako Unibertsitate Sistemako guztizkoen aipamen-kopuruari dagokionez ere (SUE), 2006-2015 tartean. Lanak, guztira, 49 unibertsitate publiko eta 31 pribatu aztertu ditu.

Hala, Euskadiko unibertsitate publikoak laugarren tokian da spin-offen «top 10ean»; 72 enpresa-ekimen dauka unibertsitate-komunitateak sustatuak. Sailkapen horretan Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa buru da, 145 ekimenekin, eta ageri denez, sortutako milatik zertxobait gorako spin-offetatik, UPV/EHUk %6,75 sustatu du, horietatik %7,67ra heldu den Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa baino pixka bat atzerago.

UNIBERTSITATE BAKOITZEKO SPIN-OFF KOPURUAREN EBOLUZIOA 2006tik 2014ra

Unibertsitateak	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Guztira
UPM	5	5	11	14	13	17	19	17	22	22	145
UGR	10	11	12	–	10	7	11	12	7	6	86
UPC	20	14	9	8	6	4	5	8	3	5	82
EHU	10	4	7	5	7	8	12	14	–	5	72
UAM	22	21	10	–	11	3	1	1	0	1	70
UAB	–	–	5	4	5	5	6	8	5	7	45
US	3	–	2	7	12	6	4	4	1	0	39
USC	4	4	3	1	1	4	5	2	4	7	35
UAL	4	6	6	9	1	1	1	1	2	0	31
UMH	0	0	0	–	1	2	1	11	6	4	25

Oharra: «–» ageri den kasuetan, ez da daturik eman; hortaz, ez dira guztizko zenbaketarako aintzat hartzen.

Iturria: OTRIs, IUNE.

EUSKADI, EUROPAKO BATEZ BESTEKOTIK GORA, LEHIAKORTASUN-RANKINGEKO 119. POSTUAN DA

Madrilgo Erkidegoa, 130,9ko indizeaz, eta Euskadi, 116,4ko indizeaz, batez besteko europarra baino lehiakortasun-maila handiagoa lortu duten bakarrak dira (100 indizea) eta, hurrenez-hurren, 83. 119. postuetan daude azken Lehiakortasun Ranking Europarrean, 27 estatu-kideetako 263 eskualde aztertu eta gero.

BBVak egindako "Eskualdeetako lehiakortasuna nazioarteko ikuspegian" azterketak autonomia-erkidegoetako ezagueran oinarritutako lehiakortasunaren

irudia ematen du, bost azterketa-esparrutako adierazle sintetikotan oinarrituta: ezagutza eta giza kapitala, berrikuntza eta IKT, inguruko faktoreak, enpresa-ehuna eta emaitzak. Ondoriozko mapak agerian uzten du bi autonomia-erkidego horiek bakarrik, eta Nafarroako Foru Erkidegoak, rankingeko 148. postuan 99,6ko indizeaz, txosteneko adierazleetako zenbaitetan maila altua lortzen dutela. Katalunia zerrendako 153. postuan dago, batez besteko europarretik ia 6 puntu beherago.

ESPAINIAKO ESKUALDEEN LEHIAKORTASUN-INDIZEA. 2016

Autonomia-erkidegoak	Eskualdeko lehiakortasun-indizea (EB batez bestekoa = 100)	Europako rankingeko posizioa (263 eskualdetatik)	2013/2016 aldakuntza (ehuneko puntutan)
Madrilgo E.	130,9	83	-10,0
Euskadi	116,4	119	-2,7
Nafarroako Foru E.	99,6	148	-5,0
Katalunia	94,1	153	-4,5
Kantabria	85,2	164	-1,4
Aragoi	77,8	173	-3,4
Asturiasko P.	77,1	174	-4,9
Galizia	72,6	181	-0,9
Errioxa	71,7	184	-9,8
Valentziako E.	71,6	184	-9,7
Gaztela eta Leon	71,1	187	-2,3
Illes Balears	62,5	200	-6,5
Murtziako E.	58,3	210	-15,3
Gaztela-Mantxa	53,3	216	-3,6
Kanariak	52,4	217	-9,7
Andaluzia	49,6	220	-10,2
Extremadura	40,8	230	-7,2

Iturria: Europar Batzordea eta egileek egin

Txostenak nabarmentzen duenez, lau autonomia horiek dira ezagutzaren ekonomiaren aldeko apustu sendoena egin dutenak; Andaluziak eta Extremadurak aldiz, ezagutzan indar gutxien jarri dutenek, %50 baino gehiagoko desbiderapena daukate RCI-ko batez bestekoarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, eta Es-


painian ezagutzaren ekonomiak aurrera eginagatik, ez dago autonomia-erkidegorik Europako eskualderik lehiakorrenen %25en artean (lehenbiziko 65ak). «Posizio-rik onenak lortu dituztenak ere urrun daude Londres, Utrecht, Oxford edo Stockholm bezalako Europako erreferentziatzko lurraldeetatik.

(2. orritik dator)

UNIBERTSITATE BAKOITZEKO AIPAMEN-KOPURUA. 2006-2015

Beste atal batean argitalpenek duten inpaktua aztertzen da, eta azterketak Euskadiko unibertsitatea zazpigarren tokian dagoela adierazten du; guztira 238.276 aipamen dauzka 2006-2015 hamar urteko tartean.

Sailkapenaren buruan Bartzelonako Unibertsitatea dago, eta ondoren Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoa datoz.



Iturria: Web of Science (WoS), IUNE

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak Aurrekontua onestea adostu zuen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak joan den ekainaren 15ean onetsitako Proiektua eta Proiektu horri buruz Gizarte Kontseilu bereko Ekonomia eta Finantza Batzordeak jaulkitako txostena aztertu eta gero; bertan, berritasun nagusiak aztertutakoan, ekonomia- eta finantza-azterketa zorrotza egiten da atal, programa eta gastu-unitate bakoitzeko eta honako hobekuntza gomendio hauek aipatzen dira:

- Aurrekontuan kontzeptu guztiak behar bezala xehatuta sar daitezela, diru-sarrera eta gastu-partida bakoitzaren barruan.

- Estatutuak betetze aldera eta epealdi iragankorrak saihesteko UPV/EHUk aurrekontua dagokion urtea hasi baino lehen onetsi dezala.
- «Gizarte Kontseiluen oinarritzko gidaliburuan» jasotako jarraibideak eta gomendioak jarrai daitezela Unibertsitateko aurrekontua eta urteko kontuak onesteko eta likidatzeko, gastu-baimenak, txosten juridikoak, barne-kontrolako txostenei dagokienez, baita jardueraren kostuak ezartzeko modua emango duten kontabilitate-sistema ezartzeko egutegia ere, besteak beste.

Aurrekontua, gastu atal bakoitzeko:

	2016	2017
Langileen gastuak	308.891.573	312.502.965
Funtzionamendu-gastuak	69.998.653	71.050.136
Finantza-gastuak	208.884	183.153
G. korranteetarako transf. eta dirulag.	2.032.340	2.089.096
Benetako inbertsioak	18.569.294	16.758.035
Finantza-aktiboen aldakuntza	100.000	100.000
Zorraren amortizazioa	2.500.351	2.516.552
Gizarte Kontseilua	456.000	336.000
GASTUAK, GUZTIRA	402.757.095	405.535.938

Atalez-ataleko azterketetan ikus daiteke UPV/EHUk zuzenduko dituela:

- 312,50 milioi euro **langileen gastuetara** (I. Atala), guztizkoaren %77 eta 2016an baino %1,17 gehiago.
- 71,05 milioi euro **gastu korrontera** (II. Atala), guztizkoaren %17,5 eta 2016an baino %1,5 gehiago.
- 16,75 milioi **inbertsiotarako** (VI. Atala), Aurrekontuaren %14,13, 2016arekin alderatuta %9,75 behera eginez.
- **Zorra amortizatza** zuzenduriko partida (IX. Atala) 2,50 milioi eurotik 2,51 milioi eurora igoko da, aurreko urtearekin alderatuta %0,4 gora eginez.

- Gainerakoa, Aurrekontuaren guztizkoaren %0,62, finantza-gastuei, transferentziei, diru-laguntzei eta Gizarte Kontseiluari dagozkie; honen dohaintza 336.000 euroan dago (%0,06) 2016ko 456.000 euroen aurrean (%0,11).

Bestelako akordioak, tasak eta bekak

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, halaber, ikasketak osagarrien 3 ikastaroren matrikula-prezioak ere onetsi zituen, baita graduondoko 38 titulu propioenak ere. Azken hauei dagokienez, gehienek, 93k hain zuzen ere, aurreko ikasturteko tasei eutsi diete eta jarraian jasoko diren hamarrak sortu berriak dira:

Graduondoko titulu propioa

Ilustrazio zientifikoa (Unibertsitateko espezialista)
Bideo-jokoen programazioa (Unibertsitateko espezialista)
Eraikuntza aurreratua, jasagarria eta adimenduna (Unibertsitateko espezialista eta Master propioa)
Geoinformatika eta analisi geoespaziala (Master propioa eta unibertsitateko espezialista)
Offshore renewable energy (MORE) (Master propioa)
Oinarritzko onkologia eta klinikoa (Master propioa)
Administrazio publikoa (Unibertsitateko espezialista)
Ikasketa txinatarak (Master propioa)
Dronak pilotatzea eta aireko ikus-entzunezko grabazioa (Master propioa)
Romunitate-, hiri-aldaketa eta aldaketa politikoa haurren autonomiaren eta parte-hartzearen bitartez. Francesco Tonucci-ren «la città dei bambini» nazioarteko proposamena (Unibertsitateko espezialista)

Azkenik, Osoko Bilkurak Unibertsitateak eskatutako aurrekontuaren hainbat aldaketa onartu zituen eta, ikerketa-taldeek lortutako puntuazioetatik abiatuta, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deitutako elkarlaneko bost bekak banatu zituen; honako sail hauei egokitu zaizkie:

- Kimika Organikoa I.
- Komunikazio Ingeniaritza.
- Farmazia eta Elikagaien Zientziak.
- Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak.
- Gizarte Psikologia eta Jokabidearen Zientzietako Metodologia.